

# Cro-magnondar gizakiaren erlijioaz

*Tras la peripecia humana del Hombre del Neandertal (150.000 / 35.000 atrás), aparece un nuevo tipo humano, el Hombre de Cro-Magnon (hace 35.000 años), con tal éxito planetario que la Humanidad de hoy es en su totalidad descendiente del mismo. Si el Neandertal expresó la religiosidad en sus enterramientos de forma incipiente, pero este hombre del Paleolítico Superior lo hizo de modo más reiterado y simbólicamente más expreso, al tiempo que nos dejaba su arte rupestre en cuevas descritas a veces como "santuarios".*

Lehen Paleolitoaren ehunka mila urteak iraganda, Goi-Paleolitoan 35.000ren bat urtetatik honakoan gaude. Neandertaldarraren ondoren, cro-magnondar gizakia da munduaz jabetuko dena. Kultura-modu berriak sortu zituen, landuko zituen tresnetan ez ezik sortu zituen azalpen sozial eta arte-lanetan ere.

## **Cro-Magnon: kultura berriak**

Euskal Herriaz ari garela hogeita bost milaren bat urte-tarteko historiari ari garela esan genezake, hau da, Goi-Paleolitoko -35.000etik K. a. 8.500ra artekoaz, Neolitoa hedatzen hasi zen arte luzatu zenaz.

Goi-Paleolitoak harlandu hobeki zizelkatua eskaini zigun, eta teknika berri horren emaitza izan zen utzi zigun tresneria ugaria, Euskal Herrian ere aurkitu izan dena; baina aurkitu nahiko genituzkeen orduko bizilagunen gorpuzkiak oraindik urriak dira munduan, eta are urriagoak gurean (Nafarroa Behereko Isturitzen edo Zestoako Errallan jaso dira).

Harlanduena gorabehera, Goi-Paleolitoa aurreko guztia baino mundu zabal eta aberatsagoa da, munduan eta Euskal Herrian (gutxienez, euskal 59 aztarnategitan aurkitu dira Aro berri horretako hondakinak); gizaki cro-magnondarraren kultura materialak mota ezberdin ugaritako ekarpenak egin zituen: tresna, apaingarri, margolan edo eskulturak, adibidez.

Garai luze hori ez da izan denbora guztian eta nonahi kultura-molde bakarrekoa, arkeologoek Aurignac-alditik hasi (-35.000) eta Magdalenaldia amaitu arte (-10.000); horregatik, kulturen interpretazio bakarrak ez du berdin balio garai eta lurralde guztietarako. Ezta erlijiotasunaz hitz egiteko ere. Hala ere, garaiko kulturaldiek eta lurralde zabalek badute ezaugarri orokor eta amankomunikatuak ere.

Gizarte sakabanatu ibiltaria da Goi-Paleolitotarra, nomada; basa-abereen ehiza eta basa-fruituen bilketaren ekonomia du ogibide: nekazaritza eta abeltzaintzarik gabea da. Gainerako herrietan bezala, euskal aztarnategietan ere aurkitu dira ekonomia eta gizarte-modu haien lekukoak. Garaiko baldintza kultureleki zegoen gisara, orduko gizakiari erlijiotasun-zantzuak ere antzeman dizkiote historialariek.

## **Erljiotasun-zantzuak**

Paleolitoan ere Euskal Herria ez zen lurralde isolatua; premiei bere baitatik erantzuten zien bitartean, inguruko herri eta kulturekin harremanetan zegoena baizik. Inguru horietan ageri ziren ohitura eta ekarpen berriek ere lagundu zieten hemengo bizilagunei, teknikak, bizimoduak eta pentsaerak eguneratzen. Horregatik, hemen bertako aurkikunde arkeologikoek ez ezik inguruko erbesteetako Historiaurrearen ezagutza (berezi-ki, Garonatik Ebrorainoko herrien ezagutza) lagun-





tza handia izan da Euskal Herriko Paleolitoaz jabetzeko.

Garaiko erlijiotasunaren albisteak hainbat iturritatik eskuratu ahal izan dira, ez nahiago litzatekeen zertzelada guztiekin, baina bai nolabaiteko erlijiotasunaren lehen aztarnak atzemateko lain behintzat. Gogoan har bedi, orrialde haue-tan inoiz esandakoa: garai haietako erlijiotasuna ez zela izan geroko erlijio garatuagoen parekoa, sinesgai zehatz eta finkatuekin, jainko-jainkosa mitologikoen iruditeria osatuarekin, erlijio-elkar-te arautuarekin, etab.

Jakitunen ikaflanetan alde erlijiosoa ez da izan jakin-minik biziena sortu duen aztergaia; baina, hala ere, han eta hemen idazlan horietan ez da falta erlijiotasunaz albisteren bat, eta guretzat inter-esgarriago dena: badago puntako zenbait iker-tzaile Historiaurreko erlijiotasun posibleaz dihar-duena. Eta horrelako lanak oso baliagarriak dira iragan hartaz ziurtasunak eta zalantzak nola banatzen diren jakiteko.

Erljiotasun hartaz bi aldetatik datozkigu albisteak: Europa mendebaldeko Historiaurretik, eta Euskal Herrian bertakotik. Neandertaldarrak hain urri utzi zizkigun sepulturak, Goi-Paleolitoan ugaritu egin ziren, eta ugaritu ez ezik esanahi argia-go eskaintzen dizkiguten ehorzketak egin zituzten garaiko bizilagunek; artelanez berek aberas-tasun jantziagoa dute, bereziki haitzuloetako margo-lanetan; animaliak margotuz eta emaku-me-irudien bidez (jainkosak?), naturaren eta giza-kiaren ugalkortasuna segurtatu nahi izan zuten. Horietan guztietan historialariek balio sinboliko eta erlijiosoa antzeman dituzte.

Haitzuloetako labar-margoen inguruko inter-pretazio-eztabaida azkarra izan da, bizia, eta hainbat teoria garatu dira margolan horien esangura argitu nahirik, Altamira-ko aurkikundetik hasi

(1876) eta gure egunak arte. Segur aski, ezingo da kobazuloetako pinturen esanahia arrazoi bakar batez argitu, baina eztabaida horretan esan diren guztien ondoren zaila gertatzen da, Historiaurreko gizaki haren alde erlijiosoa ukatzea.

Zorionez, Euskal Herria Paleolitoko Akitania-Kantabria arteko kultur-lurralde aberatsaren biho-tzean aurkitu zen, eta Altamira kantabriarrak nahiz Lascaux akitaniarrak hemen antzeko bes-te kobazulo ederrak dituzte: Isturitz, Venta Lape-rra, Arenatza, Santimamiñe, Ekain edo Altxerri. Mar-golan horietako gehienak -15.000/-11.000 urte-etan lekutu behar dira, baina horien aurrekoa da Deban Praileaitz (-18.000 urte), hain zuzen Sasio-lako frantziskotarrak gogorarazten dizkiguna.

Bestalde, Goi-Paleolitoko hildakoen historia dago, gorputz hilotzen inguruko jokabide eta ohi-turak alegia; ehorzketak moduetan ispliatuta gera-tu dira horiek, aldi berean garaiko sineskizunak eta bizi-hildakoen arteko hurbiltasunak iradokitzen dizkigutela.

Dakidanez, euskal prehistoriariek ez digute eskaini oraindik gure Paleolitoko erlijiotasun-moduaz ikerlan monografiko osorik, baina noiz-behinka azpimarratu izan dituzte aurkikunde bat-zuk, beren ustez balio erlijiosoa ere dutenak: Zes-toan, Erralla-ko orein-adarren errituzko balioa; Urnietan, Marizuloko ehorzketak-erritua, edo, nahi bada, Praileaitzeko "venus" zintzilario ezagunak.

"Santutegizat" ere hartu izan diren haitzulo-ek eta garaiko ehorzketek dirudite Goi-Paleolitoko erlijiotasun hura ezagutzeko albiste-leku argie-nak. Bestalde, orain, Erljioen Historiaz XX. men-dean egindako aurrerapenek ere ematen dute zer pentsa Historiaurre hartaz, *homo religiosus* dela-koaren sena agerianago jartzean.

**Joseba Intxausti**